



HERRI BILTZARRAREN ERABAKIEN AKTA ORTZAIZE HERRIA

2023ko apirilaren 4ko saioa

Bi mila eta hogeita hiruko apirilaren 4ean, arratseko zazpiak eta erdian, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OCAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hot zirenak: CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Inaki, IDIART Claudine, INARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OCAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Ezin etorriak: AYÇAGUER Eiorri, HEGUY Aniton,

Salokot idazkariaren izendapena: PERUSANSENA Elodie

Deialdi data: 2023ko martxoaren 31a

Afixatze data: 2023ko martxoaren 31a

7. ERABAKIA: DENBORA EZ OSOKO BEHIN BEHINEKO ANIMAZIO LAGUNTZAILE ENPLEGU BATEN SORTZEA

(4.2 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio, denbora ez osoko behin behineko animatzaile laguntzaile enplegu baten sortzea aslearte eta ostiral eguerdian haurrak jantokian zainzeko.

Enplegua jadanik sortua litzateke 2023ko apirilaren 24tik uztailaren 7ra.

Asteko lanaldia 2,62 orenekoa litzateke, urte oso batera eramana.

Enplegua C kategoriakoa da.

Enpleguen taula honela eguneratuko da:

Enplegu horren betetzeko, Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.332-23 1º artikulua xedapenak beteko dira, zeinek baimentzen baitute kontratupekoak kontratzea behin behineko jarduera emendatzei aurre egiteko, 18 hilabeteko garai batean gehienez eta 12 hilabeteko denbora meta daitekeelarik.

Enpleguari 387ko indize gordina aplikatu daki.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta eztabaidaturik,

Herri Biltzarrak:

ERABAKI DU - 2023ko apirilaren 24tik goiti, lurralde animazio laguntzaile behin behineko lanpostu eta denbora partzialeko baten sortzea, batez beste astean 2,62 orenekoa,

- enplegu horrek 387ko indize gordinari dagokion saria izan duela.

BAIMENA EMAN DIO eranskinean den lan kontratua izenpetzeko,

ONARTU DITU Auzapezaren proposamen guztiak,

ZEHAZTU DU kreditu nahikoa badaela urteko aurrekontuan.

Biltzarkideen kopurua: 15

Presente ziren biltzarkideak: 13

Bozka kopurua: 13

ALDE: 13

KONTRA: 0

ABSTENTZIOA: 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean deliberraturik, Presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuen baliokoa.

ORTZAIZEN, 2023ko apirilaren 4an

Auzapeza,

Jean-Marc OCAFRAIN

Akta indarrean da,
2023/04/11an argitaratu eta jakinarazi denetik
eta 2023/04/11 suprefekturara igorri denetik